

## GAITEGIA 2016/2017

### ANTOLAKUNTZA, FUNTZIONAMENDUA ETA ALIANTZAK

#### 1. ATALA: PERTSONA, TALDEA ETA PROIEKTU POLITIKOA

<i>Helburuak</i>	<i>Gaiak</i>
<ol style="list-style-type: none"> <li>Herri ekimenez sortzen ditugun lan-dinamika eta erakundeetan, eraginkortasun politikoa zein ahalduz pertsonala eta kolektiboa uztartzeko kontuan hartu beharrekoak gogoetatzea.</li> <li>Antolaketa eta funtzionamendu modu ezberdinak auto-kritikoki aztertzea.</li> <li>Herri mugimenduko kideen aniztasunaz hausnartuz, botere-asimetriak sortzen diren faktoreak identifikatu eta asimetria horiek lantzeko orientabideak zehaztea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>ARLO PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA MILITANTZIAN. Barne aniztasunaren jabetasuna, konpromiso eta erritmo ezberdinak; rol banaketak eta nahi gabeko espezializazioak (lan ezkutuak eta prestigioitsuak).</li> <li>TALDE IZAERA ETA TALDE LANA. Ahalduz pertsonala eta kolektiboa; lidergo partekatua (horizontaltasuna) eta hierarkia ezkutuak (bertikaltasuna); harrera eta taldekide bilakatze prozesuak.</li> </ol>

#### 2. ATALA: HARREMANAK, ZAINTZA ETA PARTE HARTZEA

<i>Helburuak</i>	<i>Gaiak</i>
<ol style="list-style-type: none"> <li>Jarduera politikoaren ikuspegi integrala lantzea gorputza, emozioak eta ideologia uztartuz.</li> <li>Norbanakoaren, taldearen eta proiektu politikoaren zaintzaren inguruko gogoeta egin eta orientabide praktikoa definitzea</li> <li>Bilerak eta lan-dinamikak parte hartze orekatuaren bidetik eramateko tresnak lantzea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>NORBANAKOIA, TALDE ETA PROIEKTU POLITIKOAREN ZAINTZA: Non dago norberaren auto-zaintza pertsonal zein talde zaintzaren eta proiektu politikoak eskatzen duen lan eta eragin soziala bermatzeko disziplinaren arteko oreka? Indibidualismo eta agenda gain karga testuinguru honetan, nola topa dezakegu oreka hori?</li> <li>PARTE HARTZE OREKATUAREN DINAMIZAZIOA. Bilerak antolatze eta dinamizatzeko metodologiak; lanaren planifikazioa.</li> </ol>

### **3. ATALA: ALIANTZAK ETA ELKARLAN POLITIKOA**

<b>Helburuak</b>	<b>Gaiak</b>
<ol style="list-style-type: none"><li>1. Herri mugimenduen arteko elkar-ezagutza eta elkarlanaz gogoetatzea.</li><li>2. Saretzeko eta elkarlanean aritzeko dauden zailtasunak eta hobetu beharrekoak aztertzea.</li><li>3. Herri mugimendu eta administrazioaren arteko harremanaren aukerak eta arriskuak identifikatzea eta hausnartzea.</li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. MUGIMENDUEN ARTEKO HARREMANAK ETA ARTIKULAZIOA. Saretzea eta sarean modu eraginkorrean lan egitea.</li><li>2. HERRI MUGIMENDUAK ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK. Aurkakotasuna, elkarlana eta elkar-eragina.</li></ol>

### **ZAPALKUNTZEN EGUNGO MEKANISMOAK ETA ALTERNATIBA ASKATZAILEAK**

### **4. ATALA: BEGIRADA KRITIKOA ZORROZTUZ. Azterketak egiteko tresnak.**

<b>Helburuak</b>	<b>Gaiak</b>
<ol style="list-style-type: none"><li>1. Pentsamendu bakarraren / hegemonikoaren aurrean ikuspegi kritikoaren gaineko eztabaida zabaldu eta formakuntza politikoaren beharraz eta mugez hausnartzea.</li><li>2. Ikuspegi aniztasunetik begirada kritikoa lantzeko tresnak aztertu eta zapalkuntzen jatorria eta egungo mekanismoak aztertzeko giltzak eskuratzea.</li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. PENTSAMENDU BAKARRA/HEGEMONIKOA vs IKUSPEGI KRITIKOA ETA FORMAKUNTZA POLITIKOA..</li><li>2. KOLORE EZBERDINETAKO BETAURREKOAK JANTZI. Ikuspegi aniztasunetik begirada kritikoak lantzeko tresnak.</li><li>3. KOIUNTURA AZTERKETAK ETA HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAK EGITEKO GILTZAK. Mapeo kolektiboak.</li></ol>

### **5. ATALA: ZAPALKUNTZEN JATORRI ETA EGUNGO MEKANISMOAK MUNDUAN ETA EHN**

<b>Helburuak</b>	<b>Gaiak</b>
<ol style="list-style-type: none"><li>1. Jendarte-eredu honen zapalkuntza anizkoitzen oinarrizko kritika egin eta jendarte-ereduaren kolapso egoera aztertu/ezagutzea.</li><li>2. Sistemaren funtzionamendua bere osotasunean ezagutu eta zapalkuntza forma anitzak harremanetan jartzea.</li><li>3. Zapalkuntzen oinarri komunak identifikatu eta gure eguneroko praktika pertsonalarekin duten loturaz gogoetatzea.</li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. ZAPALKUNTZA ANIZKOITZEN FUNTZIONAMENDUA ELKAR-HARREMANETAN LANDUZ: Kapitalismo neoliberal, klase zapalkuntza eta natura suntsiketa; Patriarkatua, genero eta sexu zapalkuntzak; Kolonialismoa, nazio eta kultur zapalkuntzak; Helduen boterea eta nagusien zapalkuntza.</li><li>2. ZAPALKUNTZAK BARNERATZEKO ETA AZALARAZTEKO FORMAK EGUNEROKOTASUNEAN. Interseksionalitatearen</li></ol>

potentzialtasunak eta mugak landu.

## **6. ATALA: ZAPALKUNTZAK GAINDITZEKO ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK**

<b>Helburuak</b>	<b>Gaiak</b>
<ol style="list-style-type: none"><li>1. Jendarte-eredu honen zapalkuntza ezberdinen oinarritzko kritika egin eta bere eraldaketa orokorra sustatzea.</li><li>2. Sistema bere osotasunean gainditzeko alternatiba askatzaileak partekatu eta esperientzia hauen potentzialtasunak eta arriskuak aztertu.</li><li>3. Egunerokotasuneko kontraesan eta koherentzien kudeaketan gaineko hausnarketa/eztabaida zabaldu.</li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. PROPOSAMEN ASKATZAILEAK</li><li>2. KONTRAESANEN ETA KOHERENTZIEN KUDEAKETA</li><li>3. PRAKTIKA KOLEKTIBOAK</li></ol> <p>*Nazioartean zein EHan sortu diren zein sortzen ari diren alternatiba ezberdinak aztertuko ditugu.</p>